

Aisialdi Zerbitzuaren Erregelamendua

Jaitsi [erregelamendua PDF-an](#).

1. ARTIKULUA.-

Araudi honen helburua Eskoriatzako udalerrian Tortolis Ludotekak eta Udaleku Irekiek osatzen duten Udal Aisialdi Zerbitzua arautzea da. Bi eskaintzak bateratuko dituen Aisialdi Zerbitzu hori emakida bidez zeharkako gestioz eskainiko da, haurrei bere beharren arabera aisialdian euskarazko zerbitzua eskaintzeko.

2. ARTIKULUA.- Helburuak

Helburu orokorra: Aisialdi zerbitzuak helburu hezitzailea izatea: gaztetxoek oreka pertsonala lantzea, balioen hezkuntza indartzea eta sormena zein ekimen pertsonalari bidea ematea. Helburu horiek lortzeko bitartekoa jolasa izango da.

Helburu zehatzak: Helburu zehatzak honako aldagaietan oinarritutako dira:

- Aniztasuna: Perfil ezberdinetako haurrek parte hartzeko aukera izan dezaten eta giza integrazioa bideratzeko.
- Motibagarritasuna: Haurren interesa abiapuntutzat hartuko da motibazioa sustatzeko. Eskaintza berritzailea eta oso erakargarria izango da batzutan eta egunerokotasunarekin plazerra suspertuko da beste batzutan.
- Sormena: Pasibotasuna alde batera utziz, haurrek beren gaitasun pertsonalak deskribitzeko.
- Autonomia: Haurren autonomia errespetatu eta sustatzea. Jarduera guztietan kritikotasuna bultzatuko da, egiten denaren gainean erreflexioa ahalbideratuz. Gazteak arduratsuak eta protagonistak izatea lortu nahi da.
- Baloreak: Elkarbizitza, errespetua, solidaritatea, ardura... Balore positiboak sustatzea.
- Malgutasuna: Kontenplazio hutsa errespetatuz.
- Harreman sozialak: Lan-taldeak antolatuz.
- Modelajea: Erreferentzia eredu positiboak emanez, haurrak identifika daitezten.
- Euskararen erabilera: Kulturaz eta hizkuntzaz euskalduna den giroa eskaintzea.
- Genero ikuspegia: Jarrera, hizkera eta jokamolde sexistak baztertzea.
- Herrigintzaren suspertzea: Herria hobeto ezagutu eta bertan integratzeko, herriko kultura eta ohiturak transmititzea.

3. ARTIKULUA.- Erabiltzaile izateko betebeharrak.

Aisialdi zerbitzuan izena ematen duten haurren arduradunek honako betebeharrak bete beharko dituzte:

- a) Eskaera-orria behar bezala betetzea dagokion epean.
- b) Haurrak nolabaiteko zainketa berezirik behar badu, haren berri ematea Aisialdiko arduradunei.
- c) Dirua kobratzeko ezarritako sistema onartzea eta kobruak egin ahal izateko Banketxe edo Aurrezki Kutxako kontu korrante edo libreta zenbakia ematea.

4. ARTIKULUA.- Epeak

Aisialdi Zerbitzua urte guztian eskainiko da. Ikasturtean zehar, 9 hilabetez eskainiko da Ludoteka

zerbitzua eta uztailean eskainiko da Udaleku Irekien zerbitzua.

5. ARTIKULUA.- Matrikula

Aisialdiko Zerbitzua behar bezala eskaini eta antolatu ahal izateko, matrikulazio epe zehatza egongo da. Matrikulazioa garaian garaikoa izango da, hau da Ludotekaren matrikulazioa zerbitzu hori eskaintzen hasi aurretik egin beharko da eta Udaleku Irekiena ere dagokion momentuan egingo da.

Bi zerbitzuetan matrikulazio-kuota osoa ordaindu beharko da, nahiz eta ludoteka edo udalekuak hasi ondoren izen-eman zerbitzu baten edo bestean.

6. ARTIKULUA.- Organoak

Arlo pedagogikoa adjudikazio-hartzaileak kontratatzen dituen langileen ardura izango da, baina Udalaren interesak ere bideratu beharko dira, horregatik beharrezkoa izango da Aisialdi Zerbitzuen Koordinazio Batzordea eratzea. Koordinazio batzorde horretan honako hauek hartuko dute parte:

- Adjudikazio-hartzaileak (bi kide)
- Udalak (bi kide)

Koordinazio batzordearen egitekoak honako hauek izango dira:

- Egutegia onartu
- Programazioa onartu
- Ekintza egitaraua onartu
- Funtzionamendua optimizatu
- Arazoei irtenbidea eman
- Ekintza bereziak proposatu eta onartu
- Asistentzien jarraipena egin
- Urtearen balorazio txostena onartu

7. ARTIKULUA.- Arauak betearaztea

Aisialdiko eskaintza honen zuzendariak eskumena izango du zerbitzuen funtzionamendurako zehaztutako irizpideak eta gutxieneko giza arauak betetzen ez dituen haurrak etxera bidaltzeko. Zerbitzua ez erabiltzeko aukera denbora tarte zehatz baterakoa nahiz urte guztirakoa izan daiteke. Kanporatzearen epea erabakitzeke ahalmena Aisialdi Zerbitzuaren Koordinazio batzordeari dagokio.

8. ARTIKULUA.- Erabiltzaileak

Aisialdi Zerbitzu hau HH1 eta LH6 bitarteko hurrek (3-12 urte bitartekoek hain zuzen) erabili ahal izango dute. Erabiltzaileen adin-tartea aldatzeko ahalmena Udalbatzak izango du, beti ere Aisialdi Zerbitzuaren Koordinazio batzordeak proposatzen diona entzun ondoren.

Aisialdi Zerbitzuaren arduradunak ikusten badu izena eman duen haur-kopurua gehiegizkoa dela, eta zerbitzua behar bezala eskaintzea ezinezkoa dela, Koordinazio batzordera eramango du gaia, eta Koordinazio batzordeak Udalari baliabide pertsonal gehiago kontratatzeke proposamena egingo dio.

Ikusiz gero, izena ematen duen haurren batek behar bereziak dituela, Koordinazio batzordeak gaia aztertu eta Udalari proposamen bat egingo du. Udalak dagokion erabakia hartuko du.

9. ARTIKULUA.- Zerbitzu orduak eta egunak

Aisialdi Zerbitzuaren bi eskaintzak modu honetan banatuko dira:

Ludoteka zerbitzua astelehenetik zapatara bitartean emango da, egun bakoitzean 3 orduko zerbitzua eskainiz arratsaldean astegunetan eta goizez zapatuetan. Eguberri eta Aste Santuko oporraldian ere 3 orduz egongo da irekita, goizetan. Oporraldian, baina, zapatuetan, jai egunetan eta zubietan ez da zerbitzua eskainiko. Gabonetako parke egunetan ere ez da ludoteka zerbitzua eskainiko.

Udaleku Irekien zerbitzua uztailean eskainiko da, eguneko 5 orduko zerbitzua.

10. ARTIKULUA.- Prezioak

Udaleku Irekiak eta Ludoteka Zerbitzua eskaintzeagatik sortutako kuota edo tarifak Udalak ezarriko ditu Osoko Bilkuran eta prezio baimenduak direnez, Legean ezarritako arauen arabera aldagarriak izan daitezke.

11. ARTIKULUA.- Hezitzaileak

Aisialdi zerbitzuko eskaintza desberdinak lan-talde profesional berak kudeatuko ditu. Adjudikazio-hartzailearen ardura izango da lan-talde profesional hori eratuko duten hezitzaileak edo begiraleak kontratatzea, zerbitzua behar bezala eskaini ahal izateko.

Irteera bereziak edo ekintza bereziak antolatuz gero ere, adjudikazio-hartzaileak berak kontratatu beharko ditu zerbitzua egoki eta bermez emateko beharrezkoak diren laguntzaile edo begiraleak.

12. ARTIKULUA.- Funtzionamendu arauak.

1. Aisialdi Zerbitzuko eskaintzen orduak eta tarifak, zerbitzuaren propaganda egiten den momentuan jakinarazi beharko dira. Bazkidetza edo izen-emate orria aurkezten dutenei, zerbitzuaren oinarriko funtzionamendu-arauak azaltzen dituen orria banatuko zaie.

2. Aisialdi Zerbitzuaren helburuak, programak eta egitarauak gutxienez urtero gainbegiratuko dira. Horren ondorioz zerbitzuan aldaketaren bat egonez gero, Udalari jakinarazi beharko zaio.

13. ARTIKULUA.- Arau-hausteak

Araudi honetan ezarritako arau-hausteak isunekin zigor ditzake Udalak, lege barruan baimendutako mugen barruan.

AZKEN XEDAPENA

2004ko ekainaren 24an egindako bilkuran Udalbatzarrak onartutako araudi hau, 7/85 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera sartuko da indarrean eta aldatzea edo ezereztea proposatzen ez den bitartean indarrean jarraituko du.